

Nafarroa

Nafarroako gehigarria / Ostirala, 1995eko otsailaren 10a / V. urtea / 165. zenbakia

Nafarroan azken berrogeita hamar urteotan ziztu bizian despoblaturatu dira, lehendik ere bazegoen joerari industrializazioak eta garai berriek behin-betiko bultzada emanik. Inoren lurrak izan dira beti, ez baitziren ez Pirinioak ez lautada. Itzagaondoa, Urraulbeiti eta Urralgoiti, Romanzado eta Longida, Artzibar. Gaur egun dozenaka herri hustuak daude bertan, baina bertako azken biztanleei ahaztu egin zitzaizkien, hirirako migrazioan, etxeak. Ahaztu elizak eta dorretxeak, ahaztu lanabesak, eta sasiak. Han gelditu ziren bakar-ba-



Itoizko dorretxea.

JOSEBA ASIRON

Despopulazioaren geografía

karrak, eta askok ez zuten behar adina kementen izan bizpahiru hamarkada zutik irauteko, ehundaka urte egon eta gero. XIV. mendeko etxeak erortzen dira neguoro, eliza erromanikoetako dorretxeak arraildurik eta sasiak janda daude, eta erre-
taula gotikoak usoen habia bilakatu dira. Inori ez omen zaio axola, material bila joaten direnei eta zenbait adituri izan ezik. Joseba Asiron arte irakasleak bildu du, argazkitan eta marrazkitan, itzuliko ez den geografía honen —despopulazioaren geografiaren— leku-kotasuna.

Muskerrak eta muskerroideak

V telesaia emititzen ari dira berriro. Sail bikaina, alafede, ikasbide handikoa. 'Bisitari' arrotz batzuk agintari jarri dira Lur planetan. Berez, muskerraren antzeko arraza batekoak dira, baina beren teknologia hipergaratuari esker ezin hobeki desgisaturik eta kamuflaturik daude, halatan non begiratu hutsean orotan iduri baitute zu eta ni bezalako gizakiak; are gehiago, neska pertxent eta morrosko sendoen parrasta ederra osatzen dute, zu eta ni baino segurki gustagarriagoak bistarako, errealitatea bera baino erreala-goak. Eta halere muskerrak dira eta odola dute berea. Azken buruko asmoa, mila zurikeri eta hitz ederren azpitik, Lurra des-

pentsa bihurtu eta gizakiokin mantenu erreserba handia egitea dute, ganaduzaleak txekorrak beheitian edukitzen dituen bezala. Baina alferrik ari dira: maioria ergelaren pasibotasuna gaingidurik, odol gorriko gazte lerdin bipil beldurgabe ausart batzuk organizazio bat zutitu dute musker gizajaleak aurretik bidaltzeko; ahal dela hostia bilduma ederra emanda. Igerriko diote bai zer menu klase aukeratu duten, bastante egoskorra.

Bueno, ba, exagerazio handirik gabe, iruditzen zait hemengo frankok holaxe ikusten dituela hemen gertatzen direnak: 'V' klabean. Ikurrin pegatina bana jar iezue gazte bipil horien metrailete; Doris eta Brian

Begi itxi-irekia

MATIAS MUJIKA



deitzeko partez, Jasone eta Aitortxo deitu iezue, eta beste al-daketarik gabe horra hemengo zenbaitzuren ustez hemen gertatzen ari denaren parabola kalkatua: musker arraza bat jabetu zaigu herriaz; itxuraz bertakoak ematen badute ere, apelliduz Goikoetxea badira ere, eta batzutan euskaraz aritzen badira ere, dena gezurra da: odol berdeko musker gibelarriak dira, izatez, gu odolustutzero etorriak, gure umeen hezurrekin maikotan jostatzero. Paralelismoa, gainera, detailetara ere hedatzen da; errepara iozue nola 'V-ko' erresistentziak akabatzen dituenak, batetik, eta hemengo gure gurutze-gerlari izugabeen akabakizun gustokoena izaten direnak, bestetik,

biak oso antzekoak diren: musker kolore berde ederrekoak. Aspaldi honetan, ordea, aurrera salto ttiki bat egin dute musker-tasunaren definizioan —musker berezkoak eskasten hasiak ote?— eta dekretatu dute hemendik aurrera haiei buruak ematen dien guztiak izanen direla musker, haien biribilketa triumfalera traba egiten duten guztiak. Eta muskerrak ez badira, muskerroideak behintzat bai, musker ohorezkoak, nahi baduzu; eta azken finean, zera, besteak bezain musker, igoal muskerrago, nahiz odola gorria izan. Eta jakina, musker oro tirogai.

Jainkoak gorde gaitzala te-
lebista neurri gabe ikusi dute-
netatik.

GUERE AUKERAK

IKASTAROAK

Malabare Ikastaroa antolatu du AEKk datozen asteetarako, Arrosadia Euskaltegian. Parte hartu nahi dutenek 24 34 66 telefonora dei dezakete. Era berean, ikasturteko bigarren ikastaroa otsailaren 13an hasiko dela jakinarazi du Euskaltegiak, apuntatu nahi duenarentzat, ordu guztiak eta zortzi urratsetako klaseak daudelarik. Aurten, gainera, 'Alfabetatze eta Mintza-praktika' taldeak ere izanen dira.

'Impostacion de la voz' ikastaroa antolatu du Nafarroako Antzerki Eskolak datozen hiru hilabetetarako. Abotsa lanerako erabiltzen duten profesionali zuzendua, ostegunetan izanen da, arratsalde, otsailaren 16tik apirilaren 6a bitartean. Eskolaren lokaletan eskainiko da eta matrikularen prezioa 14.000 pezetan jarri dute.

ZINEMA

'Tarahumara' izenburuko pelikula eskainiko dute heldu den asteartean, otsailak 14, Iruñeko Olite zineman. Zinema Mexikarrari buruz Nafar Ateneoak antolatu duen zikloaren barruan, arratsaldeko 8.00etan hasiko da. Sarrerak 350 pezetan salduko dituzte. Ateneoko bazkideek dohainik sar daitezke-larik.

'Jimmy Hollywood' izenburuko filmea eskainiko dute gaur Olite zineman, jatorrizko hizkuntzan eskainiko dituzten pelikulen zikloaren barruan. Arratsaldeko saioan izanen da, hileko datozen ostiralean izango den moduan.

'En el nombre del padre' izeneko pelikula eskainiko dute igande honetan Iruñeko Gaztetxean, Eguzki Bideoak programaren barruan. Arratsaldeko 8.00etan hasiko da.

BESTELAKOAK

Anjel Mari Peñagarikano, Unai Iturriaga eta Sebastian Lizaso bertsolariak ariko dira igande honetan, hilak 12, Arantzan. Bertso-bazkari moduan antolatuta, eguerdiko 14.00etan hasiko da.

'Esmeraldo y Esmeraldina, Historia de amor muy fina' izenburuko antzezlan taularatuko du igande honetan Iruñean Retablo de Figurillas taldeak. Udalak antolatutako haurrentzako antzerki zikloaren barruan, arratsaldeko 6.00etan hasiko da.

NAFAR KRONIKA

PATXI LARRION

Santu, santu!

«Baietz San Fermin kartel lehiaketara aurkeztu». Apustua egin eta, azken unean izan bazen ere, irabazi egin zidan. Lehenbiziko txandan lehiaketatik kanpo utzi zuten Fernan lagunaren kartela; kolore bi-ziak baino gehiago konposizioa izan zen baztertua izateko arrazoia. Aurtengo Sanferminak hornituko dituen kartela ikusirik pozez beteko da ene laguna, heldu den urtean parte hartzeaz gain irabazteko aukera handia baitu. Honez gero, lehiaketaren gaia zehaztuta dago: «Santua». Kartel zaharrek,

xarma izateaz gain, garai historikoaren lekukotasunen bat biltzen zuten. Xarma, egungo perspektibatik, zenbait irudi edota ikur ez baitziren denentzat atsegin. Duela bi hamarkada entzierroaren irudiak izan ziren modan jarri zirenak, turismoa bultzatu nahian irudirik erakargarriena eman nahi baitzen. Argazki hauek egun

aski ezaguna dugun lehiaketari bide eman zioten.

Kartelaren erabakia beti izan da eztabaidagai. Baina honetan, eztabaida baino areago gaia da arazoa, «santifikatu» den gaia. Aurtengo kartela dela-eta «aditua» omen den batek festaren elementu zibilak eta erlijiosoak biltzen dituela adierazi du. Aditu ho-

rrek, alta, Sanferminetan elementu erlijiosoak zein iturritatik edaten diren ezagutarazi behar luke, argi baitago elementu fariseoak non-nahi topa daitezkeela. Guzti honek ene lagun Fernanek ordu txikietan oihukatzen duena gogorarazi dit: «Santurik hoberena existitu ez dena, Biba San Fermin!». Sikiera beltza izanen balitz.



ASTEKO PERTSONAIAK



Faustino Aizkorbe
Eskultorea



Luis Zarraluki
Politikaria

Aurtengo Sanferminak iragarriko dituen kartela prest dago, aste honetan bertan ezagutarazi baita Udalak urtero antolatzen duen San Fermin Kartel Lehiaketako saridunaren izena: Faustino Aizkorbe oilokiarra. hain zuzen. 1995eko edizio honetan santuak berak iragarriko ditu hiriko jai nagusiak, bere irudiarekin osatua baitago kartela. Urre kolorea nagusitzen da, gorria, horia eta urdina era agertzen direlarik santuaren kapa, koroa eta bastoian. Eskultore nafar honen iritziz, «azken urteetako edizioetan galdu egin zen santuaren irudia eta berreskuratu nahi nuen». Sari nagusiarekin batera beste bi kartel saritu dituzte, akzesit hoberenak epaimahaiaren iritziz. Javier Idoatek eta Jose Luis Estebanek eginiko lanek jaso dituzte.

Udaz geroztik itxita egon da Itoizko Txintxurrenako harrobia, baina azken asteetan berriro ireki eta martxan jarri dute UTE enpresako langileek, urtegi lanetan jarraitzeko, harrobia erreserba natural batean egon arren. Ondorioz, Itoizko Koordinakundeak kereila kriminala jarri zuen enpresako eta Nafarroako Gobernuo zenbait agintariren kontra, legez ezinezkoa baita horrelakorik egitea. Luis Zarraluki In- gurigiro sailko zuzendari nagusia izan da deklaratzeko aste honetan, bere sailko eta Industriako beste agintari batzuekin. Goizeko bederatzietan hasi eta eguerdira arte egon zen epaile eta abokatuen galderei erantzuten, dirudienek kontatzeko asko baitzuen. Prozedimentuak aurrera segitzen badu epaiketa izanen dute agintari hauek.

AHAZTU GABE!

LEHIAKETA



'Baztandarren Biltzarra 95' ospakizuna iragarriko duen kartel lehiaketako oinarriak zabaldu dituzte aste honetan antolatzaileek. Urtero bezala uztailan izanen da, aurten 16an, eta Baztandarren Biltzarra Elkarte dagoeneko hasi da lanean. Kartel lehiaketan parte hartu nahi duten guztiek zenbait zehaztasun izan behar dituzte kontutan: 'Baztandarren Biltzarra 95 - Elizondo. Uztailaren 16an. Euskarak batzen gaitu' testua agertu beharko du derrigorrez kartel guztietan; 50 bider 70 zm.tako neurritakoa behar du izan; Offset sistemako teknika eta koloreak erabil daitezke; kartel bakoitzak lema baina behar du; kartelarekin batera gutun azala itxia eman behar da, kanpokaldean lema eta barnean egilearen datuak zehaztuz; apirilaren 15a baino lehen aurkeztu behar dira lanak. 'B.B. Elkarte, 22 P.K., 31700 Elizondo, Nafarroa' helbidera.

ADI!

EUSKALERRIA IRRATIA FM 91.4

Egunero, astelehenetik ostiralerara, 'Zokobetailu' goizeko 10.00etatik 11.00etara.

XORROXIN IRRATIA FM 107.5

Egunero 20.00etati 22.00etara... 'Karakola segi hola' gazteendako saioa.

ARALAR IRRATIA FM 106.2

Asteazken zehar 13.30etatik 14.00etara... Bertako bizilagun eta pertsonai ospetsuei elkarriketak.

KARRAPE IRRATIA FM 107.8

Asteazken zehar, 12.20etatik 12.35etara 'Gauza guztien gainetik' edertasuna eta osasuna, sukaldaritza, ohiturak...

Donapaleu


EGUNKARIA irakurtzeko kurtsoak

LUTXI FOURCADE / DONAPALEU

Iniziatiba berezi bat abiatu da duela bi hilabete Amikuzeko hiri nagusian, lehen aldikotz Iparraldean EGUNKARIA irakurtzeko kurtsoak ematen baitira. Ideia ukan zuen Santxo Iturriozek, Donapaleuko frantziskotar batek, ikusiz euskaldeko biztanleek zailtasunak zituztela euskarazko egunkaria irakurtzeko. Ideia aztertu zuten AEK-ko langileekin eta ondorioz, astero, astelehen aratsetan, talde bat elkartzen da frantziskotarren etxean. Ikasle bakoitza bere egunkariarekin dator eta Santxo Iturrioren laguntzari esker erraztasunak biltzen dituzte egunkaria irakurtzeko sobera burua hautsi gabe.

«Kurtsoen helburua argi da, EGUNKARIA irakurtzea nahi baitugu», adierazi zuen sinpleki Kuntzuluk, Amikuzeko Gau Eskolako langileak. «Bestaldean eta Iparraldean erabiltzen ditugun hitzen konparaketa egiten dugu eta gure hiztegi pertsonala aberasten dugu bestaldeko hiztekin», gehitu zuen. Gaur egun EGUNKARIA irakurtzea iparraldeko biztanle gehienentzat ez dela lan erraza azpimarratu zuen. «Hiztegia hego aldekoa da eta AEKn euskara ikasi duteñentzat irakurtzea posible bada ere, euskaldeko euskaldun zaharrek, aldiz, zailtasun handiakak dituzte, ez baitira alfabetatuak eta hiztegia ez baita egunerok erabiltzen dutena».

Hala ere, taldeak isilpeko helburu bat ere bazuela aitortu zuen Kuntzuluk, hala nola artikuluak idaztea EGUNKARIAN, adibidez Amikuzeko berriak emateko. El-



Frantziskotarren etxean egiten dira EGUNKARIA irakurtzeko saioak.

LUTXI FOURCADE

karren artean mintzatu ondoren ulertzeko zergatik EGUNKARIA ez zen anitz irakurria, pentsatu dute tokiko berrikeriak eskas zirela bertako euskara erabiltzeko eta irakurketa errazteko. «Guk egiten baditugu artikuluak EGUNKARIA irakur genezake!». Hala ere, nahiz onartzen duten euskara batua erabili behar da ahal bezainbat irakurle izateko, Amikuzeko euskalkia erabiltzea ez litzateke ulergaitza beren ustez. «Gure hiztegia dugu eta batzuek ikasi beharko dituzte hitz berri batzuk, baina gaur egun hori gertatzen da guretzat, hego aldeko hitz ugari erabiltzen baitira». Zernahi dela ere, indar bereziak egin beharko dira bere ustez «egun batez 'Sud Ouest' baz-

tertzea eta EGUNKARIA etxeetan sartzea helburutzat finkatu baitugu».

Hiru kurtsoak burutu dituzte jadanik eta ohartu dira EGUNKARIAN erabiltzen diren formatatik zetozela zailtasun handiak. «Esanaldien aldetik kazetaritzako sintaxi berezia erabiltzen da, adibidez kakotzak ez baliatuz», ikasleak ohartu zirenez. Beharrik Santxo ondoan duten laguntza emateko, «kakotzik gabeko esanaldiak ulertzea zaila baita», eta adibide franko ematen ditu Kuntzuluk taldearen zailtasunak adierazteko. Eztababaida franko dute taldean esanahiak ulertzeko, «eta nola ez aipa ukan duguna jakiteko 'Hizkuntza politikoa' hitzaldian zer zen adjektiboa,

jakiteko aipatzen zenez hizkuntzaren politikoa edo hizkuntza politikan sartu behar zenez».

Gaur egun, euskaldun zaharrek eta euskaldun berriak elkartzen dira bultzaturikako kurtsoetan. Denek behar handia senditu zuten, aspertzen zirelako euskarazko egunkaria irakurtzen. Hiru kurtsoen buruan, erraztasunak bildu zituztela jadanik aitortu zuen. Astelehenero, aratseko 8etan, EGUNKARIA ostokatzen dute, titulu nagusiak lantzen eta «pertsonak desberdinak garenez, artikulu desberdinak irakurtzen ditugu». Elkarriketa bukatu baino lehen kurtsoak gela polit-politean eta bertuan egiten zirela azpimarratzeko eskatu zuen Kuntzuluk.

Berriobeiti

IRUNEA

El Toro jatetxeak hartuko du Nafarroako itzuliaren irteera

Heldu den ekainaren 6an abiatuko da Nafarroako Itzuliaren XXXIV. Edizioa, Iruñetik abiatu ere. Txirrindulari afizionatuendako ongi irabazitako ospea duen itzuli honek beste urtetako ezaugarri beretsuak ditu —igotzeko mendate franko eta gogortasuna erruz—, baina aurtengo lasterketaren hasiera sua-beagoa egin nahi izan dute antolatzaileek, interes guztia azken etaparaino mantentzeko. Horrela, lehendabiziko bi etapak —Iruñea-Tutera eta Tutera Lodosa— lauak izango dira ia bere osotasunean.

Sei etapa izango dira orokorrean. Lehendabizikoa, Berriobeitiko El Toro jatetxetik aterako da, eta 172 kilometro zeharkatu

ondoren, Tuteran amaituko da. Bigarren mailako mendate bat eta hirugarreneko beste bat igaro beharko dute txirrindulariek. Bigarren etapa, Tudela eta Lodosa bitartekoa, erabat laua izango da, eta 150 kilometrotako ibilbidean haizeari baino ez diote erreparatu behar izango afizionatuek. Hirugarren egunean hasiko dira zailtasunak, Lodosa eta Bagordi bitarteko etapa gogorrean, lehen mailako mendate bat —helmugan, Bagordin hain zuzen—, bigarren mailako beste bat eta hirugarren mailako bi koska gainditu behar izango direlako.

Laugarren etapa izango da gogorrena eta garrantzitsuena. Elizondo eta Lizarra bitarte, 160 kilometrotan, lehen mailako mendate bat —Etxauri—, bigarren mailako hiru —tartean Usategieta eta Azantza—, eta hirugarren mailako bat dauzka bidean, eta bertan erabakita izango dira azken txapelarako hautagai guztiak.

Hurrengo egunean izango da etapa motz bat —Lizarra-Kastejon— eta 35 kilometrotako erlojupeko frogara, garailea erabakitzeko. Azken etapak —Korella-Iruñea, 139 kilometrota-

koa— ez luke liderrarendako inolako arazorik sortu behar.

Union Ciclista Navarra (UCN) erakunde antolatzaileak hasiak ditu aspaldidanik prestakizunak, eta 16 taldetan banatuko dira 112 txirrindulariak. Euskal Herriko talderik fuerteenak izango dira bertan, eta atzerriko talde indartsu zenbait, hala nola Kubako eta Australiako selekzioak, eta Belgikako Pessant eta Frantziako Lauvervilles taldeak.

Nafarroako Itzuliaren irabazleak hauek izan dira: Roberto Lezaun (1990), Alfredo Iruña (1991), Agustin Sagasti (1992), Oscar Lopez Uriarte (1993) eta Santiago Blanco (1994). Denak igaro dira gero profesional mailara, espektatiba itzelekin gainera, nahiz eta batzuen kasuan konfirmatu ez diren.

Arantza

Inauterietako mozorroak kalean dira

IRUNEA

Arantzatan atzo hasi ziren inauteriak eta jaiekin batera, mozorroak atera ziren kalera. Mozorroak dira Arantzako inauterietako protagonista nagusiak eta herriko kale eta bazterrek zeharkatzen dituzte atea jo eta zer edo zer bila. Aintzina, gurusoek haurrak izutzeko erabiltzen zuten mozorroa.

Umeez gaiztakeriren bat eginenez gero, mozorro beltzak etorriko zirela erranez izutzen zituzten. Mozorro txuriak, berriz, onak ziren.

Herriko gazteak, hamar bat edo, dira Arantzako mozorroak. Goizean goiz jantzi eta atez-ate joaten dira eske. Alkandora txuria jartzen dute eta atzekaldean kolorezko bi paper puska erabiltzen dituzte. Zapia ere jantzen dute eta baita galtza txuriak ere, mozorro txuriak baitira.

Atzo goizeko hamarrak aldera abiatu ziren mozorroak eta Eguzkialde eta Bordalarrea auzoetan ibili ziren. Gaur, berriz, Aietsa eta Azkilarrea auzoak bisitatuko dituzte.

Altsasu

Cofes zentrua eskatuko du Udalak

IRUNEA

Altsasuko Udalak, Sexu Hezkuntza eta Famili Orientabiderako Zentrua (Cofes) bertan jartzeko eskatuko dio Osasunbideari, eskaera horren aldeko mozioa onartu baitu. Sakanako Pro-Planing taldeak, ordea, Udalaren jarrera «kezagarria» dela erran du, «egun horrelakorik egitea ezinezkoa baita, aurrekontu eta azpiegitura falta dela eta». Pablo Sanchez Valverde Cofes zentruetako arduradunak erran duenez, aldiz, «aurrekontuaren zati bat ekipamendua erosteko inbertitu da jada», eta bi hilabete barru zentrua martxan jarri ahal izango dute, antza.

Osasunbideak, bestalde, Sakanako Cofes-a Etxarri-Aranaz jarriko duela erran du idatzi baten bidez, «bertan lehen baino lehen behar baitute zentrua». Altsasuko Udalak, zentrua bertan jartzeko eskaera egiteko mozioa onartu du, erran bezala, eta Calixto Ayesa Osasun kontseilariarekin bilera eskatu du ere, udalaren eskaera onar dezan. Urbasa taldeak aurkeztu zuen aipatu mozioa eta aldeko zortzi botoen bidez onartu zuten.

Etxe gotikoak, erromanikoak, eliza dorretxe ederrekoak, jauregi planta dotorekoak, edozein herritan oro apainduta eta ederki zainduak izango liratenak. Baina Itzagaondoa, Urraulbeiti edo Longidan daude, mende honetan ia erabat hustu egin diren zonaldeetan. Goitik jota bi edo hiru familia bizi dira, hori herri handiengatik, baina gehienak sasiak janda daude, arraiak zartatuta, eta barkadadeak inguratuta. Utzikeriak eta despopulazioak berak ahaztu zuen ondare artistiko garrantzitsu hau, urteik urtera abia biziaren desegiten ari dena. Inork ez omen du kontuan hartzen, eta soilik etxe berriak egiten ari direnak hurbiltzen dira, material —harriak, leihoak, habeak— eske. Joseba Asiron arte irakasleak eman ditu inguruak aztertzen, eta herri gehienetako argazkiak ditu bilduak. Marrazkiak ere egiteko asmoa du, desagertzen ari den azken hondar hauen lekukotasuna uzteko.


Sasiak jandako lurraldeak

Pirinioak ondoko arroak gero eta basamortuagoak



Orbaitz herriko (Longida Ibarra) etxea.

JOSEBA ASIRON



Zarikietako (Longida) eliza, sasiak janda, iazko ekainean.

JOSEBA ASIRON



Nagoreko (Artzibar) etxe dotik.

JOSEBA ASIRON



Imizkozko (Artzibar) etxe nagusia, hutsik.

JOSEBA ASIRON



Erdotzaingo (Longida) Uritz berria.

JOSEBA ASIRON

Motxoli

● Urteko lemixiko egun hauetan Damaso Barberena 'Motxoli' joan zaigu 74 urtetan. Hondar urtetan, hainbertze aldatzen ari den mundu honetan, gero eta pertsonai bixti eta jator gutxiago ari zaigu gelditzen, horietariko baiginduen Motxoli, herriko xelebreia.

Behialako bizikerak mol-datua zen, jagoiti sortuko ez den kastakoa.

Nekez adiaraz daiteke haren nortasuna ele gutxitan, kontuan hartuz garraldarra behar zela izan haren mintzoaren entendatzeko, hain zuten bixtia eta berezia zerabilen solasa (erdarazkoa, ez beitzekien Euskaraz xardukitzen, zuen adina izanik ere).

Gizon txikia txapela handiaren pean beti, begirada bixi-bixia zuen eta oroz gain dignitate aire baten jabe zen, nekez galtzekoa.

Iruñera joanik, Sanfermin-kari, ez zen jendaldi barnean kukutua pasatzekoa, beti agerian, beti nabarmen... hainbertzeraino non hiruzpau urtetan haren portretagertu beitzen egunkari berdean, festetako espiritua biltzen zuelakoan. Umore geizteko gizonak barne-barnean zeraman mina, eskasia: maitasuna, zuzenago erranik, emazteki baten amodioa.

Donado izanik nesako guziak berdin laket, baldin eta '200 hilabetekoak' baziren (17 urte) eta 'informe onekin' (erran nahi beita bular ederrretakoak), zeren bera gizon bat 'arras inglesa' beitzen (dotore eta fina, funtsean). Telebixtan ikusi nesako batura biluzgorrik zeudela sobera gordinki ez adiarazi nahian 'beren berezko uniformekin' (con su uniforme propio) ateratzen zirela erratan zuen. Bai, 'imelectual y correcto' ginduen Motxoli.

Ardura izenak ere bertzelakutzen zituen Idoia 'Idoria' bilakatzuz konparazione, Obidio 'Obillo', kolza 'folfa', preserbatiboak 'superlatiboak', Madrilako erregina 'Sofia y Letras' eta honen alaba 'Prinzipa Fanta' (*princesa infanta*)... eta abar luzea. Eri egoterakoan '60 gradu' sukarrarazteraino ailegatua omen zen zenbeitetan, 'folfa' eragina.

Ardoz landa gustokoan zuen garagardoa 'San Leon' zenez, herriko tabernariak adi behar zuten ibili entendatzekotan.

Irri saio luzeak eginak ditugu berarekin, bai eta eginen ere, haren pasadizo, ixtorio eta erranerak oroitzerakoan. Berarekin diot eta ez berari buruz, zeren hauxe zen, hain zuzen, harengan gehien mirensten nuen: biziaren aintzinean zuen umorea, barneko grina eta minen sendagi.

Behialako sinismenak eta eskolan ikasi gutxia, inuxentekeria eta biziaren esperientzia, xinplesia eta zorroztasuna aldi berean nahasten dituzten pertsonai hauen tenorearen egin duke dagoeneko, errepresentatzen duten munduarenak bezala tamalez. Zure izenean, Motxoli, *jun txatito de corcho, po favó!*



Bertsolaririk abilena

Galdera: Zera zeratu nahi nuke, nola zera zeratzean, bada, ez dut zera hori oso ongi zeratzen, eta zera da, ulertzen al didazu? Beste zerik gabe.

Erantzuna: Irakurle hipokrita, ene gisakoa, ene anaia. Hori galdera zuzena eta txukuna.

Gogorrean ez duzu ezer lortuko, eta onez onean baliteke. Arazo sexual asko eta asko, gizonezkoenak bereziki, haurtzaroko kontuak izanez, aldi joana egunera ekartzean sendatu egiten dira.

Beraz, hesi horiek gaintzeko behar da oroimen ona, buru ona. Gogorazi Elioten bertsoa: 'Apirila da hilarik krudelena, lur/hileko lilak haztan, oroimena eta desioa/nahastan, sustrai uherrak'. Azpimarraketa gurea da. Oroimena eta desioa nahasita dituzu, beste zerik gabe. Eta larrutan ibiltzeko behar da gorria, fisikoki ezezki, psikosomatikoki ere.

Nola zabilta buruz? Esate baterako, bi urte zenituela, zer koloretakoa zen zure pixa-oihala? Dudatan zabilta, seinale txarra.

Beraz, eta bukatzeko, esan behar dizut, ezer baino lehen, azenaoriak jateko, burua freskatzeko, eta zure pixa-oihala gogoratzeko, eta sartu ohean zure izena bera ez gogoratzeko maneran.

Galdera: Nolabait zure ustez zein da nolabait sexualki euskal bertsolaririk abilena, nolabait jaiarena, trebeena nolabait, nolabait esanda?

Erantzuna: Bakarka edo nolabait binaka?

Galdera: Berdin dio nolabait.

Erantzuna: Berdin baldin badio nolabait, nolabait Bernat Etxepare.

Galdera: Uste al duzu maiteminduta dagoen pertsona aholkurik aditzeko gauza dela?

Erantzuna: Inolaz ere ez. Egia esan, kontsulta hau alferrikakoa da. Maiteminduta baldin badago, pertsonak ezin die jaramonik egin pulamentuzko eta zentzuzko arrazoiei. Eta jaramonik egiten baldin badie, ez dago maiteminduta. Amodioak ez



Nola zabilta buruz? Esate baterako, bi urte zenituela zer koloretakoa zen zure pixa-oihala?

du mugarik ezagutzen, eta are gutxiago arrazoiaren muga.

Hala ere, esan behar da kontsulta honetan, badaezpada ere, ez dugula egundaino pulamentuzko eta zentzuzko arrazoirik ematen. Beraz, maiteminduta dauden pertsonak aditzeko arrazoiak esaten dira hemen.

Galdera: Nor da erresuma honetako pertsonarik ederrena?

Erantzuna: Zu zeu, dudarik gabe. Halaz ere zure informazioarako esan behar dizut badagoela neskatxa ederrir-eder bat, edota mutila, ez baitakit zer zaren, zu baino ederragoa, mila aldiz ederragoa. Nahiz eta gezurra izan, horixe da zuk aditu nahi duzuna, ezta?



Pamielak argitaratutako 'Caínes navarros' liburuaren ilustrazioa.

Maiteminduta baldin badago, pertsonak ezin die jaramonik egin pulamentuzko eta zentzuzko arrazoiei.

Zergatik pentsatu behar ote dugu ez garela nor gu izateko? Seguru nago Claudia Siffert (edota Sifhert) kezkatu dagoela, Larraunen edo Patagonian neska bat bera baino ederragoa dela aditutakoan. Gure akatsak onartzeko lanak egin behar ditugu. Gure ederra onartzeko beste horrenbeste.

Klasiko bitxi arront klasiko

Juan Uhartekoaren olerkia

1550an jaiotako kalongearen euskal lan bakarra da, 1927. urtean argitara emana.



Joannes Markalaingoak —Ez usteak zure atean joka— behinola horrialde arin hauetan bazuen jada **Altabizkarko** kantuaren berri zehatz laga. Garay Monglave baionar eta Koldo Duhalde Ezpeletakoak sortu iruzur sekulako horren oihartzuna aditua da honezker ostiraleko gehigarri naparran. Baia gure **Jaun Dotoreak** gogoan gorde bide zuen berze pertsonai baten aipamena, **Campion** jaunarena alegia. Ezaguna da etorkin italiarreko irunsheme honen euskal lan ia bakarra: **'Orreaga, balada escrita en el dialecto guipuzcoano'**.

Campion aunitzez ere osoago dagerkigu, hau bederen ez baita mitologia berri baten asmatzailea, baia estonagarri xamar gertatzen da aurreko lana ez aipatzea ere: *'cuando se publicó el número primero de la revista Euskara, honrome su redacción insertando una balada que con el título de Orreaga escribí en el dialecto guipuzcoano'*.

Halarik ere, hau ez da lekua ez unea saltsa honetaz iharduteko, are gutiago gai berbera ukitua izan denean bi astetan jarraian. Baia, Orriako parte horretan egonda, ez dateke okurrentzia txarra izan leku berean jarraitzea. Gaurkoan zilegi bekik nonbait honako olerkitxo hau Nafarkaritzatza: *'Aynguiruen erreguinal Orierriagan xarririk/ Aynguiruen compañian/ Gloria gutiz veteric/ Çu zarade ederrenal Creaturen ertean/ Gloria ere andiagol Çeru eta lurrean/ Sandulariac ecusi dul Gozo andis veteric/ Jhs Jaincoac eman diol/ Benedictio ederric'*.

Aitor beharra daukat, hala ere, hau ez dela neuk idarokitako gauza, are gutiago neronek sorturikoa. Hau, berzerik gabe, 1619. urtean Juan Uhartekoaren kalongearak jaso edo sortu olerkitxoak dugu. Aldez aurretik J.B. Daranatz, Ezpeletako semea eta Baionako apezpikuaren idazkaria zenak, argitara eman zuen Baionan bere **Curiosités du Pays Basque** bilduman 1927. urtean.

Baia, nor ote dugu Juan Uhartekoaren pertsonai hau? Berze kanonigo batek horren berri eman ahal digu. Jabier Ibarrek, **'Patronato de la Biblioteca Olave'** zeritzon erakundeak 1934. urtean antolatu zuen laugarren sariketan

5.000 pezeta irabazteaz gainera Juan Uhartekoaren buruzko zertzeladaren batzuk badakartza bere Historia de Roncesvalles liburu mardulean. Iruñeondan dagoen izen bereko herrian sortu zen 1550 inguruko urtean. Berze euskal apez aunitzek egin zuten eusku duan Salamancan bete zituen bere ikasketak eklesiastikoak, bere lan pastoralak Esteribarko Ilarratz herriaren hasiz. Lan eskaxa zuen nonbait halako herri pobrea, eta 1596. urtean Orriarat jo zuen, bi urte beranduxeago profesioa eginez. Handik urte gutxira, hau da, 1609. urtean hain zuzen, **lic. Juan subprior** bikala agertzen zaigu agerrian. Lan nekosoak ez omen zen berea berriro ere, eta bederatzirte beranduxeago Felipe III. erregeari Orriako priorato edo Olivako abade titulua eskatzen dio, baina bere eskakizunak oso adituak ez omen zirela iduri nonbait, eta 1625. urtean betetzen zuen postu berean Jinkoaren eskuetatik abiatu zen betiko.

Bitartean, zenbait eskuizkribu uzteko aukera izan zuen, eta egun Orriako badira bere hiru lan zabalak: **Silva de varia lición de servicios y demostración de fidelidad con prompta y uniforme vountad del Reyno de Navarra española en servicio del Rey cathólico su señor con un catálogo y linea real de sus soberanos Reyes deduzida hasta el mesmo Rey. Algunas excelencias del mesmo Reyno y de la grandeza de la Monarchia de España**, hauxe 800 horrialdetako eskuizkribuak 1614. urtekoa. **Apología en favor del Cabildo de Roncesvalles et contra visitas y sus fautores, y de la secularización y renovación y nuevo estado de su orden y nueva forma de vivir**, hauxe pleito luzea Orriako elizaren sekularizazioaren aldekoa. Azkenik, badu **Historia de Roncesvalles** izeneko idazkia, 1619. urtean egin, 600 horrialdetakoa. Bai Ibarrek bai Daranatzek ez dute modu onez laudoriatzen lan hau, rigoritate eza nabaria leporatzen diotelarik. Horrela izanda ere, ezin uka lan berean dagerren olerki huraren garrantzia, bai urtearengatik, nola Uhartekoaren sorterriarengatik. Ez dakiguna da ea ordurako Uharteko tipulak famazkoak zirentz.




■ Iruñeko Hiria xake torneo irekiko 9. ihardunaldiko partida, 1995ko urtarrilaren 5ean jokatu.

Francisco Javier Otsoa, 2.425 ELOkoa (Euskal Herria)-Josep Oms, 2.375 ELOkoa (Espainia).

1.e4,d6; 2.d4,Zf6; 3.Zc3,g6; 4.Zf3,Ag7; 5.Ae2,0-0; 6.0-0,c6; 7.a4,Dc7; 8.h3,bZ-d7; 9.Ae3,e5; 10.e5,e5; 11.Ac4,Zf5; 12.Dd2,Zf4; 13.Aa2. Zergatik jokaldi hau? Ez, ez da hutsa, ezta denbora galtzea ere, baizik eta maniobra baten hasiera. Pausoak zehatz-mehatz jarraitzekoak dira. 13...., Af6; 14.Ze2,g5. Nolabait behartuta jokatu dute horrela. Txurientzat, 'f5' laukia goxo-goxo dago.

15.Zg3,Gd8; 16.Dc3,Dd6; 17.Dc4,Df8; 18.Zf5,Ze6; 19.a5. Beltzen peoien egitura apurtzeko aukera badago. Nola galarazi?

19....dZ-c5. Ikus Koadroa. Txuriak hobeto kokatu dira. Ondorioz, une honetan abantaila hartzeko abagunea daukate: peoi bat, alegia. 20.Ac5,Dc5; 21.Dc5,Zc5; 22.Zh6,Eg7; 23.Zf7. Helburua lortuta. Gainera, beltzen peoiak ahulak dira. 23....Gf8; 24.Zd6,Ad7; 25.b4,Ze6; 26.c3,b6; 27.b6,b6; 28.Zc4. Bigarren peoia eroriko da (b6-koa edo e5-koa). Beltzek etsi zuten, hirugarren peoia (c6-koa) berehalaxe desagertuko zelako (cZ-e5,Ae6, eta abar).





Margarita Valoiskoa —Margot izenez ezaguna— Nafarroako azken erreginari buruzko pelikula heldu da Euskal Herriko pantailera aste honetan, nahiz eta gure artean oraindik ez den estreinatu. Frantziako zinemagintzaren produkzio itzel honetan Nafarroako Gortearen pasarte interesgarrietakoak azaltzen dira.



Goian, ezkerrean, Margot erreginaren garaiko koadro bat. Eskuinean, Isabelle Adjani, filmeko protagonista, eta behean pasarte bat.

Margot Nafarroakoa

ALBERTO BARANDIARAN / IRUNEA

Ez da Nafarroako historia pantailera azaltzen diguten lehendabiziko aldia, ez eta azkena izango ere, baina gutxitan ikusi ahal izango da halako artelan eder eta oparo hornitua —bai diruz, bai aktore famatuz, bai baliabidez— Nafarroa oinarritzat hartzen duena. Gure artean berandu baino lehen estreinatuko den filme honek bost urte behar izan ditu gauzatzeko, eta 100 milioi liberako —2.500 milioi pezeta— aurrekontu itzelarekin Frantziako zinemagintzari behiala galdutako ditzira eman diola diote kritikariek.

Frantziako zinemagintza argitzeaz gain, Nafarroako historiaren pasarte ilunetakoari ere argi emateko —horretarako sikiera— balio lezake filme honek. Gaztelak Nafarroa inbaditu eta menderatu ondoko urteetan —1620. urtera arte—, Nafarroako Erregeak Nafarroa Behe-

rean, Zuberoan eta Biarnon bizi izan ziren, eta han eutsi zieten Nafarroako lege, foru eta erakundeei. Frantziar sortutako hiru erreginari esker —Margarita Angulemakoa, Joana II.a Albretekoa eta Margarita Valoiskoa 'Margot Erregina'—, inoiz ez bezalako garapen kultural eta humanista izan zen Nafarroako gortean, eta Europako erreformisten aldetik gorespen hitzak jaso zituen ahaleginak. Shakespeare antzerkigile ospetsu askoak 'Amodio galduaren ahaleginak' bere lanaren pertsonaia baten ahoan jarri zuen: «Nafarroak mundu osoko miresmena bereganatuko du».

EDERTASUN ITZELEKO EMAKUMEA Margot erregina izan zen dinastia honen azken ondorengoa, ausartena eta unibertsalena. Akademia bat eratu zuen —hartatik deusik gelditzen ez

bada ere—, eta Shakespeare edo D'Aubigné bezalako autoreen aipamenak merezi zituen. 'Memoires' bere lana garai osoaren sintesia da, eta bertan bere amorrante guztien aipamenak daude bilduak. Orduko kronistek diotenez itzelezko edertasuna zuen emakumeak, eta pertsonalitatea ez nolanhikoa. Bere amodioak zirela eta, Ussongo gazteluan izan zuen hogeitaz giltzape turik Enrike III erregeak. Historia ederra eta erakargarria. Horrela ikusi zuen, besteak beste, Voltairek, 1745ean 'Nafarroako Printzesa' izeneko antzezlan idatzi baitzuen. Horrela ikusi du, halaber, Patrice Chéreau zuzendari frantziarrak.

Oso pasarte esanguratsua aukeratu du pertsonaia historikoaren inguruko giroa osatzeko. 1572ko abuztuaren 24an, Nafarroako Enrike III.aren eta Margaritaren arteko ezkontzatik sei

egunera, San Bartolome gau famatuan izugarriko sarraskia izan zen Parisen bereziki, baita Frantzia osoan ere. Margarita bere emaztearen anaiaren agindupean, katolikoek 10.000 hugonote —Frantziako protestanteak— hil zituzten Parisen eta 100.000tik gora Frantzia osoan.

Egia egiari zor, Biarno eta Paris bitartean ibili ziren garai hartako koroakun nafarrak, eta eragin eskasa izan zuten beren mende zegoen gizartean. Hala ere, European sona handia eskuratu zuten, haien babesean loratu zen giro intelektualarengatik.

GIRO INTEKTUAL SONATUA Angulemakoa Margarita (1492-1549) izan zen aitzindaria. Frantziako Alençoneko dukearen emaztea zela, Paris ondoko Meaux herrian bildu zuen aditu eta intelektual talde garrantzitsu samarra,

orduko ideia aurreratuenak eztabaidatu eta praktikan jartzeko ametsak bultzatuta. Oposizio handia sortu zuen saioak, eta bere senarra Paviako gudan hil zela eta, bertan behera gelditu zen dena. 1527an Nafarroako Enrike II.aren ezkondu zen, hau da, Nafarroako Erresumaren oinordeko legitimoarekin. Nafarroako lurraldeetara heldu zen horrela Margarita, bere lagunak eta intelektualek jarraituta. Orduan idatzi zuen 'Heptameron' lan famatua, eta, giro egokian —Elizaren haserretik eta Parisko gortearen esames eta ezinikusietatik urrun— ideia humanistek eta neoplatonikoez zabalkunde handia izan zuten. Pabe eta Neraceko jauregietan Calvino eta Erasmo Rotterdamgoa izan ziren, eta garaiko Elizaren kritika handiak jaso zituen gorte nafarrak. Orduan argitaratu zen Bernard Etxepareren 'Linguae Vasconum Primitiae' (1545), euskarazko lehen idazkia.

Labriteko Joana (1528-1572) bere alaba izan zen Margaritaren asmoak gorpuzten saiatu zena. Bere garaian tentsio handiak izan ziren Frantziako erregearen partetik, anxioaren bila ari baitzen, baina Joanak ez zuen inoiz horrelakorik onartu. Berak argitaratu zituen bere amaren hainbat lan, eta Jon Leizarragaren Testamentu Berriaren euskarazko itzulpena egin zen.

Errege-erregina hauekin amaitu zen, hain zuzen ere, Nafarroako dinastia. Nafarroako Enrike III.a geroago —1589. urtean— Frantziako Enrike IV.a izango zen, eta ordura arte errege guztiak Nafarroakoak eta Frantziakoak izan baziren ere —bi koroak aparte jantzen zituzten—, 1620. urtean Nafarroako Erresuma 'ofizialki' erantsi zioten Frantziakoari, protestak gorabehera.

«Ideiak jaten ditugu»

EDURNE ELIZONDO / IRUNEA

Eusko Jaurlaritzak eta Euskal gastronomi Elkarteak, urtero bezala, Euskadi Gastronomi Sariak banatu zituzten joan den ostiralean Laudioko (Araba) Zubiko Etxean. Argitalpen onenaren saria jaso zuen Juan Cruz Cruzek, Nafarroako Unibertsitateko filosofia eta dietetika irakaslea, Eusko Jaurlaritzako bozeramaile eta Kultura Saileko

Hau da, elikatze-moduak iker-tzen dituen jendea bada eta guztion lanaren onarpena da sari hau.

EGUNKARIA.— Zein da zure ikerketa lanetan garatu duzun tesi edo teoria?

CRUZ.— Elikagaiek duten izaera sinbolikoa da nire ikerketa guztien oinarri. Elikaduran hiru maila bereiz daitezke. Lehenengoa maila dietetikohigienikoa izango litzateke. Elikagaiek izatea fisiologikoa

na, elikagaiek ezkutuan dutena agertu eta elikagai berrietara hurbildu.

EGUNKARIA.— Familia aipatu duzu. Zer funtzio betetzen du familiak?

CRUZ.— Familiak irakatsi diguna jaten dugu, batez ere. Gure gustuak, beraz, familiak ezartzen dizkigu. Baina familiak sortzen dituen ohitura horiek ez dira beti egokiak. Beraz, zuzentzeko ahalegina ere egin behar dugu.

EGUNKARIA.— 'Dietetica medieval' izenburuko liburua da idatzi duzun azkena. Zeintzuk dira Erdi Aroko dietaren ezaugarriak?

CRUZ.— Donejakue Bidearen inguruan badago beti harritu


na, elikagaiek ezkutuan dutena agertu eta elikagai berrietara hurbildu.

EGUNKARIA.— Familia aipatu duzu. Zer funtzio betetzen du familiak?

CRUZ.— Familiak irakatsi diguna jaten dugu, batez ere. Gure gustuak, beraz, familiak ezartzen dizkigu. Baina familiak sortzen dituen ohitura horiek ez dira beti egokiak. Beraz, zuzentzeko ahalegina ere egin behar dugu.

EGUNKARIA.— 'Dietetica medieval' izenburuko liburua da idatzi duzun azkena. Zeintzuk dira Erdi Aroko dietaren ezaugarriak?

CRUZ.— Donejakue Bidearen inguruan badago beti harritu



Juan Cruz Cruz, Nafarroako Unibertsitatean.

JOXE LACALLE

kontseilaria den Mari Karmen Garmendiaren eskutik. 'Alimentacion y cultura. Antropologia de la conducta alimentaria' liburuarekin eskuratu du aipatu saria.

Liburu honetan elikatze-modua finkatzen duten erregela edo arau arrazionalez, gastronomiaren oinarriez azken batean, mintzo da Juan Cruz Cruz irakaslea, eta gai horren inguruan eta jaso berri duen sariarekin hainbat argibide azaldu dizkio EGUNKARIARI.

EGUNKARIA.— Gastronomi argitalpenik onenaren saria jaso berri duzu. Zer deritzozu?

JUAN CRUZ CRUZ.— Oso kontent nago. Baina niretzat, garrantzitsuena, lehen aldiz erakunde batek halako ikerketa lan bati saria eman izana da.

baino ez dute lehen maila honetan eta elementu elikagariak baino ez dira. Maila honetan, berdin zaigu elikagaia baratzean edo laboratoriotan sortua den. Bigarren maila, berriz, maila organoleptikoa da, eta honetan, gure zentzumenek parte hartzen dute jada. Elikagaien zapore, usain eta soinuak ere jabetzen dira zentzumenak. Gizakiak zentzumenen bitartez jasotzen duena jaten du. Azkenik, kultura maila deritzona dugu hirugarrena. Elikagaia ez da elikagai edo elikagarri soila, maila honetan kulturak, ohiturak edo familiak elikagai hauei egotzi dizkieten ideia guztiak aurki ditzakegu. Gure zentzumenek elikagairen bat bazter dezakete eta ohitura ezberdi-

ren bidez?

CRUZ.— Elikadura sinbolo bat besterik ez da, edozein bandera ere sinbolo den moduan. Elikagai bat gure tradizio historikoan dagoelako onartzen dugu, eta normalean gure ohiturek erakusten digutena jaten dugu. Janariari sinbolo eta ideiak egokitzen dizkiogu eta horregatik, hain zuzen ere, jaten ditugu. Finean, gure ideiak jaten ditugu. Ohitura, alde batetik, positiboa izan daiteke baina beste askotan kaltegarria. Izan ere, ohiturak erakusten diguna besterik ez baitugu jaten. Gizakiak, ordea, hori baino gaitasun handiagoa du eta hezkuntzaren bidez, ohitura hori gaindi dezake. Hori da, azken finean, 'sukaldaritza berria' deritzonak egiten due-

nauen esaera bat: 'Ogiak eta ardoak egiten dute bidea'. Esaera honek dioenak zehatz-mehatz azaltzen du Erdi Aroko dietaren ezaugarri nagusia. Hau da, bidea inguratzen duten herri guztietan haragi, arrain eta esne ugari bazegoen ere, bidean ziren erromesei ardoa eta ogia besterik ez zieten ematen. Izan ere, garai hartakoen ustez, esneak eta arrainak lepra sortzen zuten. Esnea, adibidez, maiatzaren erdialdetik ekainaren erdialdera bitartean baino ez zuten edaten. Luze gabe 'El refrán dietético en la obra de Sorapan de Rieros' izeneko liburua kaleratuko dut, eta bertan ere elikatze-moduari buruzko esaera anitz aurki daiteke. Guztiak, garaiko elikatze-modu honen adierazgarri dira.

Juan Cruz Cruz

IRAKASLEA



SOSLATA

Andaluziarra Iruñean

Juan Cruz Cruzek 1964an amaitu zuen Filosofia eta Letrak karrera eta orduz geroztik Nafarroan bizi eta lan egiten du. Jaiotzez, hala ere, andaluziarra da, Cadizkoa. Ikasketak burutu bezain pronto irakasle laguntzaile lanean hasi zen Nafarroako Unibertsitatean, harik eta beka bat lortu eta Alemaniara joan zen arte. 1970ean itzuli zen Iruñera eta 1974an Madrilén irakasle titular plaza atera zuen. Baina eszedentzia eskatu eta Nafarroara itzuli zen. Gaur egun, Filosofia emateaz gain, Dietetika irakasle ere bada. Elikatze-moduen inguruan garatu dituen ikerketak unibertsitatean lantzea lortu du, beraz. 'Dietetica medieval' da bere azken liburua.

NOSKI JATOR

© zaldi ERDA

